

txintxarri



100 urtez gurekin

Ormazabal loradendak mendeurrena ospatuko du urte honetan zehar, ekimen ugari aurrera eramanda / 2

TXINTXARRI

Alboka, Errenterian irabazle

Gabon Abesti lehiaketa horri eta beste gai ugari buruz hitz egin du TXINTXARRI-k Montse Latorre zuzendariarekin / 7

Martxoaren 19an iritsiko da 23. Korrika Lasarte-Oriara, asteartearekin eta gauetz: 21:58an / 3

TrukeLandia egitasmoa aurkeztuko dute hilaren 18an, kultur etxean, 17:30ean / 4

TXINTXARRI-ren atari digitaleko trafikoa hazi egin da 2023an, inoizko datu onenak erregistratuta / 5

Ainhoa Martin herritarra Gabonetako Nazioarteko Sariko garaile izan da / 10

Herritarrak, kirol ezberdinetako Euskadiko zein Gipuzkoako lehietako podiumetan / 11-12

Herriko kirol elkarte zein kirolariak hainbat Gabonetako jardueretan parte hartu dute / 12-13

2023-2024 ikasturtea UDAL EUSKALTEGIAN IKASTARO ERDIKO MATRIKULAZIOA

A1 eta A2 tituluak euskaltegian bertan lortzen dira.
B1 (1HE), B2 (2HE) eta C1 (3HE-EGA)eko azterketak egiteko prestatu.

IKASTAROAREN IRAUPENA: 2024KO EKAINERA

- Astelehenetik ostegunera. Astean hamar ordu. Txandaka ibiltzeko aukera maila guztietan
- Hiru ordutegi aukeran: 09:00-11:30 | 15:00-17:30 | 18:30-21:00.
- 16 urtetik gorakoentzat.

MATRIKULA ZABALIK URTARRILAREN 31RA ARTE

EUSKARA, bidaia harrigarria

#euskarharrigarria

DIRULAGUNTZAK BADAUDE. GALDETU BALDINTZAK



HABE diruz lagundua
HABE



Lasarte-Oriako UDAL EUSKALTEGIA (Bekokale bidea, 1) Tel: 943-36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus BULEGO ORDUTEGIA: 08:30-19:00



Ormazabal loradendako jabe, senide eta Aterpea elkarteko ordezkariak, denda atarian. TXINTXARRI

100 urtetan loratu dena ospatuko dute

'100 urte zuekin' leloa aukeratu du Lasarte-Oriako Ormazabal loradendak bere ehungarren urteurrena ospatzeko. Hala, urte luze hauetan euren ondoan izan dituzten herritar eta bezeroei eskerrak emateko ere baliatu dute hori. Otsailaren 17a izango da ospakizun egun nagusia

Txintxarri

"100 urte Lasarte-Oriarekin". Hitz horiekin eman dio hasiera Ramon Ormazabal, Ormazabal loradendako jabeak hasiera negozioaren ehungarren urteurrenaren berri emateko deitu duen agerraldiari. Hari beretik jarraituz, ospakizuna aurrera eramateko aukeratu duten leloa aurkeztu du: 100 urte zuekin. Horrela, zorionak eman

dizkie urte horietan guztietan eurekin batera Ormazabal loradendak ibilbide hori egitea ahalbidetu duten herritar guztiei: "Zorionak guztioi; loradendari eta zuoi".

Azpimarratu du mende batek "askorako eman duela", eta ibilbide luzearen laburpen bat eginaz jarraitu du hizketan. 100 urte baino gehiago egin du atzera;

1896. urtera hain zuzen. Lizarriturriena Haundi eta Izar Lizarriturriena Txiki eraikinez hitz egin du. Azken horretan birraitonak zuen negozioaz mintzatu da: "Alpargatak egitea zen haren ogibidea, baina lan hori egiteaz gain, mertzeria, ehun denda eta taberna negozio bat ere bazuen eraikin horretan. Bizarra mozteko lekua ere bazen, eta gasolina

hornigailu bat ere bazegoen. Etxe horretako senide Javier Ormazabalek (Ramonen aitona) Lizarriturriena Haundi erosi, eta martxan jarri zuen gaur egunera arteko bidea egin duen lokala, nahiz eta, garai hartan, bizarra mozteko negozioa eta taberna izan".

Urteak aurrera egin ahala, 50. hamarkadan Ramonen gurasoek hartu zuten lokalaren kudeaketaren ardura, eta eraberritze lanak egin ostean, jangaien negozio gisa abiatu zuten. Eta, gurasoen bideari jarraiki hasi zen Ramon Ormazabal familia negozioan. 16 urte zituen orduan, eta, bere emazte Cororekin ezkondu ostean, abiatu zuten, elkarrekin, gaur egun ezagutzen den lora eta opari denda. Hiru belaunaldiren ibilbidea ekarri du gogora.

Lasarte-Oria aldizkaria

Lasarte-Oria aldizkariak egiten duen "lan interesgarria" balioan jarri du Ormazabalek: "75. urteurrena bete genuenean bezala, oraingoan ere publikazio ederra egin digute". Jesus Mari Egizabal izan du, bereziki, gogoan, aipatu aldizkarian egiten duen lan nekaziazatik.

Irudi korporatiboa

Urteurrena aitzaki, irudi berria izango du aurrerantzean Ormazabal loradendak. Asier Esparzak egina da, eta xehetasun gehiago ere eman ditu. Azaldu du, adibidez, hizkiak "euskaldun estilokoak" direla, eta koloreek "alaitasuna eta esperantza" erakusten dutela. Kontatu du baita ere logo horretan agertzen den 100 zenbakia lurretik hazten dela; komertzio bat garatzeak eskatzen duen "indar eta lana"

erakutsi nahi izan dute horrekin.

Elastiko batzuk ere prestatu dituzte, eta, horiei, eurentzako garrantzitsua den esaldi batekin apaindu dute: *Izan garelako, oraindik ere bagara, beti izango gara.*

Herriko merkataria, ondoan

Aterpea merkatarien elkarteari ere eskaini dizkio hitz batzuk. Gogoratu du duela 30 urte abiatu zuela bere bidea, eta, orduz geroztik, herriko komertzioaren alde lanean ari dela. Aipatu elkarteko zenbait ordezkari ondoan izan ditu Ormazabalek urteurren aurkezpenean.

Otsailaren 17a

Datorren hil erdialdean egingo dute ospakizun nagusia, otsailaren 17an. Mezarekin emango diote hasiera egunari; Ama Brigitarren komentuan dagoen Kontsolamenduaren Ama Birjinari ehun urte hauetan jaso duten laguntza eskertzeko egingo dute elizkizuna, Brigitarren komentuan, 11:00etan.

Ostean, ekitaldi nagusia aurrera eramango dute. Antonio Mercero gunean izango da hori, eta, iragarri dutenez, loradendaren ibilbide luzearen gainbegirada labur bat egingo dute bideo proiektio baten bitartez; Isaac Farre argazkilaria izan du hori egiteko ardura. Horrez gain, txistulariak, Alboka abesbata, Zero Sette akordeoi taldea eta Erketz Euskal Dantza Taldeen emanaldiak ere izango dira.

Egun zehatz horretan egingo dituzten jardueraz gain, urtean zehar gehiago ere izango direla iragarri du Ormazabalek. Loradendak Korrikarekin bat egin eta bertan parte hartuko duela ere jakinarazi du. Hala, urteak ekarriko dituen sorpresak ere eskuzabali jasoko dituela nabarmendu du.

Oria auzoa omenduko du Islada Ezkutatuak taldeak

1936ko gerran borrokatu zuen Rosa Luxemburgo bataloiko zenbait kide azaltzen diren argazkia jarriko dute

Txintxarri

Oroimen historikoaren alde lan egiten duen Islada Ezkutatuak taldeak, udalarekin elkarlanean, ekitaldi bat aurrera eramango du igande honetan (hilak 14), Oria auzoko Karmengo kapera,

12:00etan. Zirkuitu ibilbidean dagoen argazki historikoen segida luzatu egingo dute, 1936ko gerran borrokatu zuen Rosa Luxemburgo bataloiko zenbait kide azaltzen diren irudi bat jarrita. Dokumentu grafiko hori

herritar batengandik jaso zuen eragile horretako kideek, TXINTXARRI-ri azaroan emandako elkarrizketan azaldu zuten.

Solasaldi horretan jakinarazi zuten baita ere jarduera honen asmoa dela Oria auzoari "omenalditxo bat" egitea eta jarriko duten argazkiak "ongi" islatzen duela bertakoen izpiritua. "Frankisten inbasioari eusteko lehen lubakiak haiek eraiki zituzten eta bakoitzak etxean zuenarekin egin zieten aurre". Aipatu ekitaldi hori irekia izango da.



Oria auzoan dauden argazki historikoen segida. TXINTXARRI



Duela bi urte Xumela koruko lagunek hartu zuten lekukoa Lasarte-Oriako aurreneko txandan. TXINTXARRI

23. Korrika, martxoaren 19an eta gauez

Urnietatik iritsiko da aurten lekukoa Lasarte-Oriara, 21:58an, eta, ia ordubetez herriko kale eta bazterretan ibili ostean, Usurbilerantz abiatu, Hipodromo etorbideko zubian barrena. Irundik hasi eta Baionan amaituko da aurtengo lasterketa

Txintxarri

Ohetik altxa eta kalera atera ziren herritarrak duela bi urte, goizean goiz heldu baitzen 22. Korrika gure herrira. Aurten, alderantzizkoa izango da bidea: euskararen aldeko lasterketa erraldoi horretan parte hartu eta lotara sartu gero. Izan ere, egitasmo horren 23. aldia martxoaren 19an (asteartea) ailega-

tuko da Lasarte-Oriara, Urnietatik, 21:58an. Ia ordubetez zeharkatuko ditu kale eta bazterrak, Hipodromo etorbideko zubian barrena Usurbilerantz abiatu aurretik.

Bost egun lehenago abiatuko da 23. Korrika, Irundik, eta Euskal Herri osoa zeharkatuko du 24ra bitartean, Baionan amaituta. Orotara 2.700 kilometro

egingo dituzte. *Harro herri* izango da aurtengo aldiaren leloa, arrazoi honengatik, lasterketaren aurkezpenean Korrikaren arduradun Ane Elordik eta AEKren Artekaritza Kontseiluko lehendakari Aitziber Balantzategik adierazi zuten: "Aurreko edizioako parte hartze masiboak argi utzi zuen gure hizkuntzaz harro gaudela eta

guztion artean komunitate sendoa osatzen dugula".

Erreserbak, otsailetik aurrera

Korrikaren antolatzaileek zehaztu dute eragile eta norbanakoek otsailaren 1etik aurrera erreserbatu ahal izango dituztela kilometroak. Lasarte-Oriakoak hartu nahi dituztenek Muntteri AEK euskaltegiarekin jarri beharko dute harremanetan, Geltoki kaleko 17. zenbakian duen bulegora joanda.

Bestalde, "nobedadeak" txertatu ditu AEK-k Korrikaren apli-

kazioan. Aipagarriena, "erabat" itxuraldatu dutela, atal berri ugari gehituta: adibidez, Korrika Laguntzaile txartela app horretan bertan emateko eta zozketetan parte hartzeko aukera. Ibilbideari lotuta, herritarrek "inon baino lehenago" ikusteko abagunea izango dute aplikazioaren bidez eta baita Korrika zuzenean jarraitzeko ere, furgonetaren geolokalizazioaren bidez. Halaber, bilatzaile aurreratua du, lasterketa aurrerapenez ala atzerapenez datorren jakiteko, besteak beste.

Erreferentziako guneak

Martxoaren 19an helduko da 23. Korrika gure herrira, asteartearrekin, ondo bidean, 21:58an, Urnietatik. Ia ordubetez zeharkatuko ditu kale eta bazterrak, Hipodromo etorbidean barrena Usurbilerantz abiatu aurretik, 22:50ean. Hauek dira gau berezi horretan herritarrek kontuan izan beharreko erreferentziako guneak:

23. Korrikak Lasarte-Oriara egingo duen ibilbidea

- 21:58 Kostegi (Oztaran bidea, 3).
- 22:02 Urnieta bidea 17.
- 22:05 Urnieta bidea 3.
- 22:08 Goikale 19.
- 22:12 Ola kalea 2.
- 22:15 Kale Nagusia 56.
- 22:19 Kale Nagusia 79.
- 22:22 Kale Nagusia 34.
- 22:26 Donostia etorbidea 6.
- 22:29 Bariante errepidea (Goiegi jatetxea zenaren parean).
- 22:33 Pinutegi 10.
- 22:36 Hernani bidea 10.
- 22:39 Osina kalea 3.
- 22:43 Buenos Aires aldapa 4.
- 22:46 Buruntza kalea 9.
- 22:50 Pintore eta Iñigo de Loiola kaleak gurutzatzen diren izkina.

Erreferentziako gune horietako kilometroak erreserbatu nahi dituztenek otsailaren 1etik aurrera izango dute horretarako aukera, Korrikaren antolatzaileek jakinarazi dutenez. Interesa dutenek Muntteri AEK euskaltegiaren bulegora (Geltoki kalea, 17) joan beharko dute ostegun horretatik aurrera.

txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

**Zure iragarkia jarri nahi duzu?
Jar zaitez gurekin harremanetan!**

Deskontu bereziak herrikoentzat!

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66



Ezker-eskuin, Ttakun KEko Kultura arduradun Arkaitz Illarramendi eta udaleko Euskara batzordeburu Jon Antxordoki. TXINTXARRI

Eman eta jasota, guztiak aberats TrukeLandian

Hilaren 18an aurkeztuko dute egitasmo hori Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkartek, Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan, 17:30ean. GurasoLandia ekimenean parte hartzen ari direnak joan daitezke, aurrez gonbidapenak eskuratuta

Txintxarri

Esperientzia eta ezagutzak eman eta jasotzearen bidez guztiak bilaka daitezke aberats TrukeLandia egitasmoan. Izenak berak dioen bezala, bizipenak trukatzeari da helburua, hilabete behin. Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkartek aurrera eramaten dute, elkarlanean. Erakunde eta eragile horretako ordezkariak, Jon Antxordoki Euskara batzordeburuak eta Arkaitz Illarramendi Kultura arduradunak iragarri dute hilaren 18an aurkeztuko dutela jardura, Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan. 17:30ean hasiko da festa giroa izango duen ekitaldia eta GurasoLandia ekimenean parte hartzen ari diren familiek parte hartu ahalko dute, aurrez gonbidapenak eskuratuta.

Joan den ikasturtean TrukeLandian parte hartu zuten kideetako batzuk ere joango dira aurkezpenera, bizi eta landu zutena kontatzera: errezetak, jolasak, ipuinak, abestiak... amaiezina da zerrenda. Honezkero

parte hartu dutenek esango dutena adi entzuteaz gain, ekitaldira bertaraten diren familiek primeran pasatzeko aukera izango dute festa kutsua izango duen ikuskizun horretan. Horretan lagunduko du, nola ez, Porrotx pailazoak: antolatzaileekin batera dinamizatuko du arratsaldea.

GurasoLekuren adarrak

TrukeLandia egitasmoa GurasoLandiaren baitan dago, eta, azken hori, GurasoLeku izeneko ekimen baten adarretako bat da, GurasoLagun eta GurasoTegirekin batera. Urte batzuk daramatza martxan xede honekin: herriko haurrak elebidun oso bihurtzea, euskararen transmisioa familietan bultzatzearen bidez. Lan mahai batek koordinatzen du

DOAKOA ETA FESTA GIROKOA IZANGO DA AURKEZPEN EKITALDIA; PORROTX PAILAZOAK DINAMIZATUKO DU

hori guztia eta hauek dira kideak: Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzua, Ttakun Kultur Elkartea eta herriko ikastetxeak nahiz eskualtegiak.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, "berezia" izaten ari da ikasturtea, ehun familietatik gora parte hartzen ari direlako aurten GurasoLandian, bost programaziotan banatuta, 0 eta 5 urte artekoek zuzendutakoetan hain zuzen ere.

Gonbidapenak jaso

Lehen esan bezala aurten GurasoLandian ari direnek bertaratu ahalko dute TrukeLandiaren aurkezpenera. Ekitaldirako gonbidapenak hilaren 16an eta 17an jaso ahalko dituzte Ttakun KEren bulegoan (Geltoki kalea 4, behe), 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

Egun eta ordu horietan bulegora joan ezin dutenek kultur etxera bertara joan beharko dute 18an, eta 17:00etatik aurrera jaso gonbidapenak. Ikuskizuna doakoa dela gogorazi dute antolatzaileek.



NEURE KABUZ

JULEN BASTERRA

Zaintzari buruz

Zaintza erdigunean jarri beharra ukaezina da. Aurtengo greba feministaren leloa horixe izan da eta guztiz bat egiten dut maximo horrekin. Guztien bizitzak erdigunean jarri nahi dituen sistema baten alde egin nahi dugu modu kolektiboan, ados. Baina, nola egiten da hau? Nire gaurko helburua, gaiaren konplexutasun eta sakontasunari euskal gizartearen testuingurutik haratago dagoen gogoeta bat luzatzea izango da. Ea ba!

Lehenik eta behin, uste dut oso garrantzitsua dela gogoraraztea giza natura nolakoa den, alegia, gu guztiok zer garen aipatzea, sakonera joatea. Gizakia, izan gizon edo emakumea, izaki soziala da naturaz. Alegia, gizakiak elkarrekintza soziala behar du bizirauteko, modu naturalean hazteko, munduarekin harremantzeko, ikasteko, sortzeko, ez sufritzeko... Beste modu batera esanda, gizakiaren berezko dimentsio sozial horretan zaintza oso presente dago, zaintzarik gabe ezin garelako ongi harremandu, behar bezala garatu, geure buruak arduratu, gure beharrak asetu, zoriontsuak izan... Gizakiak izateko, beraz, zainduak izan behar dugu lehenik. Halaber, gizaki garelako sentitzeko, hots, gizatasunaren esperientzia hori gure baitan bizitzeko, besteak ere zaindu behar ditugu, gizatasunari jarraitasuna zaintzak ematen baitio. Gauzak honela, zaintzarik ezean, gizakiarik ez dago, zaintzaren bitartez gizakiaren dimentsio soziala esanahi eta edukiz blaitzen baita. Hortaz, soziala izateak, komunikatzaile ona edo lagunkoia izatearen klitxetatik haratago, zaintzailea izatea barne hartzen du halaber.

Idea honekin ados bagaude, hau da, zaintza giza naturaren parte dela onartzen badugu, honako galdera hau egin beharko genioke geure buruari: Gizakia izan nahi al dut? Eta ez zait galdera batera inozoa iruditzen zaintzaren noziotik zearo aldendu den gizarte zoro honi begira jarrita. Benetan diot, gizakia izan nahi al dut? Ziur aski inork ez du galdera hau kontzienteki egingo eta harriturik erantzun gidake "ez al naiz iada gizakia ala?" "akaso zaldia al naiz eta oraindik ez naiz ohartu?". Gizakiaren itxura izatetik gizakia izatera sekulako aldea dagoela erantzun nioke nik.

Izan ere, gizakia izatea inoiz amaitzen ez den bide luze eta korapilatsua da. Bob Dylanek esango lukeen moduan *How many roads must a man walk down before you call him a man?* Gizon izatera heltzeko gizon batek ibili behar dituen bideak zenbat diren galdera airera bota arren, erantzuna ez digu haizeak ekarriko. Erantzuna orain, zaintza zer den ahaztu dugun gizonok eman beharko dugu. Eta bai, iruditzen zait gizonoi dagokigula orain zaintzarekiko gogoeta sakon hau egitea. Noiz, nola eta zergatik ahaztu dugu berezkoa zaigun ezaugarri hau? Mundu mailan zaintzarekiko dagoen gabezia hau kontziente egiteko gai izango al gara? Modu indibidualean erabakiak hartu eta gu geu eraldatzeko prest al gaude?

Humanitateak mundu honetan aurrera egingo badu gizonaren arketipo zaharra suntsitzea besterik ez zaigu geratzen. Inor ez zaintzea pribilegiotzat dutenen patu tragikoari amaiera eman beharrean gaude. Azken buruan, gizarte elkar zaintzen duten gizakien harreman sare bat dela barneratu ezean ez da mundu honetan ez gizon ez emakumerik izango.

TXINTXARRI-ren trafikoa hazi egin da 2023an

Herri aldizkariaren atari digitaleko datuak orain arteko onenak izan dira amaitu berri den urtean: inoiz baino orrialde gehiagotan nabigatu dute sekula baino erabiltzaile gehiagok, sekula baino saio gehiago hasita horretarako. Ikusiena iazko sanpedroen egitaraua izan da

Txintxarri

Gero eta erabiltzaile gehiagok saio ugariago hasten dituzte www.txintxarri.eus atari digitaleko edukietan barrena nabigatu eta orrialdeak bisitatzeko. TXINTXARRI-ren lantaldeak 2023ko datuak errepasatu eta aurreko urteetakoekin alderatu ditu. Hona hemen lagin bat: bisitak %5,6 hazi dira

aurreko urtearekin alderatuta, eta, 2017tik, %58. Bestela esanda, duela sei urte kontsumitzen zizuten edukien bikoitza baino gehiagotan barrena nabigatzen dute orain.

Atari digitalaren trafikoa hazten jarraitzen du urtez urte eta ez bisitatutako orrialdeetan bakarrik. 58.867 erabiltzailek

saltseatu zuten TXINTXARRI-ren webguneko edukietan, 2022an baino %10 gehiagok (52.843 izan ziren orduan). Duela sei urte 24.989 izan ziren.

Herri aldizkariak bere atari digitalera igotzen dituenak irakurri, ikusi eta entzun ahal izateko, saioak hasi behar izaten dituzte erabiltzaileek. Datuak

eskuetan, iaz baino gehiago ez dituzte inoiz zabaldu: 149.312. Konparaziorako, 2022an 134.805 ireki zituzten, ia %10 gutxiago, eta, 2017an, 62.816, 2023koen erdiak ere ez.

Irakurle eta entzule

Esan beharrik ez dago pozarren dagoela TXINTXARRI-ren lantaldea aipatutako datuengatik. Apurka-apurka gero eta eduki erakargarrikoak sortzen saiatzen ari da eta baita berrikuntzak egiten ere, Tokikom Tokiko Hedabideen Bateragunearen laguntzarekin. TokiHOTS sistema da horren azken adibidea, aipatu eragile horrek Elhuyarrek batera garatutakoa. Horri esker, albiste eta bestelako edukiak irakurri soilik ez, euskaraz entzuteko aukera izango dute nabigatzaileek. Webguneko

orrialde bakoitzaren goialdean topatuko duten tresna barra erabili besterik ez dute izango horretarako.

Play botoia sakatu besterik ez dute egin behar entzunaldiari ekiteko, eta, geratzeko, *Stop*-i eman. Gauza gehiago ere egin ditzakete edukietan barrena saltzeatzen dutenek, hala nola, esaldi bat aurrera edo atzera egin, irakurlearen ahotsa auzeratu edota audioa deskargatu.

Proba egiteko eduki aproposa izan daiteke hau bera, lantaldeak webgunerako espreski prestatu duena. Besteak beste, 2023ko hamar eduki ikusienak zeintzuk diren jakin ahalgo dute. Irakurleen artean jakin-min handiena piztu zuen albiste udalak eta zenbait eragilek sanpedroetarako prestatutako programari buruzkoa izan zen.

2023ko hamar eduki ikusienak TXINTXARRI-n



Egitaraua aurkezten. TXINTXARRI

1- Sanpedroetako egitaraua aurkeztu zuten eragileek

2.558 IKUSTALDI

Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean makina bat jarduera antolatatu zituzten herriko jaietarako. Irakurleen artean iaz jakin-min gehien piztu zuen edukia izan zen.



Gaztetxoak, korrika. TXINTXARRI

2- 21. Korrika Festa, iruditan

1.088 IKUSTALDI

Lasterketa nagusiaren ondoren, haur eta gazteen txanda izan zen. Harrobia indartsu datorrela erakutsi zuten beste behin, adinka egindako lasterketa jendetsuetan. Aurpegi irribartsuak izan ziren ugarietak.



1994ko sanpedroak. TXINTXARRI

3- 90. hamarkadako San Pedro Jaiak gogoratzen

1.052 IKUSTALDI

TXINTXARRI-ren artxibo historikoan arakatu ostean, 1994 eta 1999 urteen arteko sanpedroetako makina bat irudi berreskuratu eta irakurleen eskura jarri genituen.



Neomak taldea. TXINTXARRI

4- Sanpedroetako kontzertu nagusiak iragarri zituzten

951 IKUSTALDI

San Pedro Jaiak girotu zituzten musika talde nagusien berri eman zuen Lasarte-Oriako Udalak: Zetak, Neomak, Laguardia eta Star Ways izan ziren kartelburuak.



Sasoetako ikasle batzuk. TXINTXARRI

5- Eguraldi txarrari, danborren hotsa

805 IKUSTALDI

San Sebastian bezpera ospatu zuten herriko ikastetxeek. Eguraldi zakarrak ez zuen hoztu ikasle eta irakasleen animoa, eta gogotik astindu zituzten danborrak.




Irakasleak, mozorrotuta. ORIARTE

6- Oriarteko ikasleen 'lip dub'-a inauterietan

793 IKUSTALDI

Inauterietako ostiralean, Oriarte institutuko Euskara Batzordeko ikasleek antolatuta, 'lip dub' bat grabatu zuten eraikinean. Zetak eta Zartakoka taldeen abestiek in egin zuten dantza.



Konpartsa bat, 1994an. TXINTXARRI

7- Inauteri analogikoak

648 IKUSTALDI

Inauterien berri 1994tik ematen ari da TXINTXARRI. Lehen urteetan kamera analogikoekin ateratako irudietako batzuekin erreportaje bat egin zuen lantaldeak, urtez urteko ospakizunen erreposoa ginez.



Lasterkariak, krosean. TXINTXARRI

8- Lasarte-Oria Bai! 26. krosa, Kale Nagusiko irudiak

636 IKUSTALDI

Krosaren ibilbidetik Kale Nagusia izan zen irakurleen artean ikusmin handiena sortu zuen eremua, bertan ateratako argazkiak izan zirelako guztietan ikusienak.



Lizardi, saio batean. TXINTXARRI

9- Imanol Lizardi hil zen

610 IKUSTALDI

Euskara eta kultur arloko erreferenteetako bat galdu zuen Lasarte-Oriako maiatzean: Imanol Lizardi hil zen, 65 urterekin, eritasun larri baten ondorioz. Egitasmo askotan aritu zen, sortzaile nahiz laguntzaile.



EH Bilduren zerrenda. EH BILDU

10- Hogei kideko zerrenda aurkeztu zuen EH Bilduk udal hauteskundeetara

596 IKUSTALDI

Maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako zerrendako hogeikideen berri eman zuen Lasarte-Oriako EH Bilduk, bere oinarriek berretsi ostean.



TXINTXARRI

Errege Magoen bisita

Hilaren 5eko eguraldi txarrak harrera egitaraua aldatzera behartu zuen Megaba elkarteak, Errege Magoen etorrera antolatzeaz arduratzen den eragilea, baina giro kaskarrak ez zuen herritarren ilusioa hoztu edota busti. Kontrara, lasarteoriatarrek inoiz baino

ongietorri goxo eta beroagoa egin zieten Melchor, Gaspar eta Baltasarri.

Hiru erregeak Atsobakar egoitzan zeuden bitartean eskutitzak jaso zituzten morroiek, Okendo plazan. Arratsaldean, berriz, Loidibarren frontoian izan ziren.



TXINTXARRI

Jaiotza onenak saritu dituzte

Danok Kideko lehendakari Charo Calvok eta Jesus Mari Eguizabalek aurkeztu zuten ekitaldia elkartearen Blas de Lezo kaleko egoitzan. Guztira, 23 jaiotza auzeratu zituzten 30. lehiaketara, bakarka nahiz taldeka eta Eva Lizarraga eta Pablo Alzola epaileek erabaki zuten zeintzuk izan ziren onenak.



TXINTXARRI

Olentzero eta Mari Domingi

Olentzero eta Mari Domingi zorte gehiago izan zuten Errege Magoek baino eta eguraldiak ez zuen haien iritsiera zapuztu: erdigunean barrena desfilatatu zuten eta Antonio Mercero aretoan izan ziren gero bertaratu zirenei harrera egin eta beraien eskutitzak jasotzen.

Xixuko ahatea eta Mari Teilatuko izan zituzten lagun goiz osoan zehar. Porrotx pailazoak ere festara joatekoak zen baina etxean geratu behar izan zuen azkenean, gaixorik. Edonola ere, festa giroa ederra izan zen eta ederki pasa zuten parte hartzaile guztiek.



ISAAC FARRE

Gabonetako doinua, gospela

New Orleans Gospel Quartet laukoteak eman zuen pasa den urteko azken kontzertua, udalak Gabonetarako antolatutako kultur ekitaldi sortaren barruan. Urteak dira kutsu erlijiosoa duen musika estilo hori Lasarte-Oriako Eguberrietako doinetako bat bilakatu dela; kultur etxera bertaratutakoek emanaldi eder batez gozatu zuten.

Urte amaierara bidea, kirola egiten eta mozorrotuta

Zazpigarren urtez, dozenaka herritarrek giro ederrean parte hartu dute San Silvestre lasterketan

Txintxarri

Pasa den urteko azken eguna korrika edota ipar martxa egin da ekin zioten dozenaka herritarrek, San Silvestre lasterketan parte hartuta. Jon Presa izan zen guztietan azkarrena baina goize-

ko festa horrek (2022ko aldian egindako aldaketa mantendu zuten) beste protagonista batzuk ere izan zituen. Bi aipatzearen, Yeray Rodriguez haurraren aldeko pintxo pote solidarioa egin zuten eta Txema Valles omendu.

Festa giroko kirol probaren esentzia mantendu dute antolatzaileek baina egitaraua berrituta: aurrenekoz parte hartu zuten LOZET elkartearen buruhandi eta erraldoiek eta Bizipoza elkarrekin, adibidez. Honezkerok ohikoak diren ekimenak etorri ziren ondoren: Porrotx pailazoarekin kanpaikadak, pintxo pote solidarioa eta beroketa musikatua.

Horren guztiaren ostean *Agurra* dantzatu eta lasterketari ekin zioten. Helmugan sari ugari banatu zituzten antolatzaileek.



Zenbait partaide, Kalbario bideko aldapa jaisten. TXINTXARRI

"Maila oso ona emateko gai garela sinetsi behar dugu"

MONTSE LATORRE ALBOKA ABESBATZAREN ZUZENDARIA

Hamasei urte dramatza herritarrek Alboka Abesbatza zuzentzen, horietatik hamabi, bakarrik. "Oso azkar" pasa zaio denbora, "asko" gustatzen zaiolako egiten duena: "Nire saltsan nago"

Iñigo Gonzalez Sarobe

Alboka Abesbatzak berriki Errenterriako Gabon Abesti lehiaketa irabazi izana baliatu du TXINTXARRI-k herriko eragile horren zuzendariarekin elkartzeko, Montse Latorrerekin.

Bikain itxi zenuten 2023a, Errenterriko Gabon Abesti lehiaketa irabazita. Egun batzuk geroago, nola baloratzen duzu lortutakoa?

Oso esperientzia aberasgarria eta positiboa izan da, lan izugarria egin genuen lehiaketa hori prestatzeko. Gure lehen helburua ahalik eta emanaldi onena egitea zen. Horrela egin genuenez, emaitzak eman zituztenean ez nengoen urduri ere, oso-oso pozik baizik. Hirugarren sariduna iragarri zuten, bigarrena... eta lehenengoa guretzat zela jakin genuenean ba taldekideak oihuka, elkar besarkatzen... Kristorena izan zen, egindakoaren fruitua.

Lan izugarria egin zenutela esan duzu. Noiz hasi zineten prestatzen?

Ekain amaieran proposatu nien parte hartzea eta denek esan zuten baietz. Irailean hasi ginen bi abestiak prestatzen, *Birjiña maite* eta *Bi Eguberri Kanta*. Oso sakon landu genituen entseguetan eta kide bakoitzak bere etxean.

Abeslarietxerako lanak izaten dituzte batzuetan, beraz.



Montse Latorre, Errenterrian lortutako diploma eskuetan. ALBOKA ABESBATZA

Abestiak nik kantatu eta audioak bidaltzen dizkiet etxean ikas dezaten. Lana aurreratzen dugu horrela eta entseguetan elkartzen garenean errazagoa da dena bateratzea. Lantzen ari garen obra ongi interpretatzea da kontua, ez soilik letra atera eta horri nota musikalak jartzea; askoz gehiago dago atzetik.

Zer gehiago?

Abestiak eman nahi diguna. Askotan esaten diet: 'Bueno, bale, ongi irakurri dituzue letrak eta notak, baina, honekin zer?'. Melodiak landu behar ditugu, kontuan

izan behar ditugu obrak idazten dituztenek zer komunikatu nahi diguten guri eta guk zer esan nahi diegun ikus-entzuleei.

Nolakoak izan ziren Errenterrian abestu aurreko minutuak? Urduri zeundeten?

Soinu froga bat egin genuen hamar bat minutuz eta gustura geratu ginen, kiroldegi bat izan arren nahikoa ongi entzuten zelako. Bestalde, hasi aurretik hitzalditxo moduko bat eman nien. Zazpi talde izan ginen guttira eta guri seigarren aritzea egokituz zitzaigun, ba taldekoei

esan nien hori zela txanda onena eta disfrutatu egin behar genuela, beti irribarre batekin. **Taldea motibatzea da, hortaz, zuzendariaren lanetako bat. Eta gainerakoak?**

Oro har, nire zeregina taldea gidatzea eta dinamika mantentzea dela esango nuke, ez lehiaketa edo bestelako emanaldietan soilik, baita entseguetan ere. Zuzendari batek jakin behar du musikaz, jakina, baina nire ustez garrantzitsuena pertsona multzo bat eramatea da. Horrez gain ba partiturak aukeratzea eta denen atseginekoak izatea, programazioa antolatzea, eta abar.

Errenterrikoa ez zen iazko lehiaketa bakarra izan. Arnotegi Erdi Aroko eta Errenazimenduko Musika Lehiaketa Nazionalen aritu zineten apirilean.

Hori izan zen gure lehenengo txapelketa urte askoren ostean; 25 bat, gutxi gorabehera. 2022ko azaroan Erriberrin izan ginen bertako koruak gonbidatuta eta oso kontzertu ona eman genuen, amaitu eta gero lore asko jaso genituen, tartean, David Azurza musikagile tolosarrarenak. Arnotegiko lehiaketan aritzeko proposatu zidan eta handik hilabete barru, abendu amaieran, taldekideei eman nien aukera horren berri. Denek esan zuten baietz eta martxan jarri ginen.

Lau hilabete polit eta lan askokoak izan ziren, esango nuke klik moduko bat egin zuela taldeak. Iruditzen zait horrelako erronkak jarri behar dizkiogula gure buruari zer egiteko gai garen sinesteko. Herriko abesbatza bat gara, ez erdi profesionalak beste batzuk bezala, baina barneratu egin behar dugu oso maila ona emateko gaitasuna dugula. Lana eginez gero, zergatik ez?

Zenbat kide zarete gaur egun?

40 pertsona gara ni ere zenbaita. Batzuek sorreratik darimate Albokan, 1988tik, beste batzuek 27 urte, hogeit hamar... ez da gutxi! Esango nuke kohe-sionatuta dagoela taldea, lortu dugula nolabaiteko oreka bat mantentzea, belaunaldi desberdinetako pertsonak elkartzea.

Noiztik zara zuzendari?

Albokan 1996. urtean sartu nintzen eta orduan hasi nintzen txikien taldea zuzentzen. Hel-duena gidatzeari 2008an ekin nion Kristina Perezekin batera, eta, 2012tik aurrera, ni bakarrik ari naiz.

Badira urte batzuk... Azkar pasa dira?

Bai, oso azkar. Esperientziak asko eman dit, ez du zerikusirik kargua hartu zuen Montsek gaur egungoarekin. Gogoratzen dut txikiak zuzentzen hasi nintzen egunean tila bat hartu nuela, lasaitzeko! Oso lotsatia naiz baina proposatu zidatenean baietz esan nuen, eta, berehala, hau: 'Ai ama, baina non sartu naiz ni...'. Hala ere, aurrera egitea erabaki nuen, asko gustatzen zaidalako hau, nire saltsan nago.

Urte berrira begira, zer duzue esku artean?

Aukera eta proposamenak baditugu baina zehaztu gabe ditugu oraindik, gure artean hitz egin behar dugu. Aurreratu dezakegu Ordiziako Emotio koruarekin hasi genuen elkartrukearekin segi eta haiengana joango garela abestera eta apiril amaieran San Salvatore abesbatza etorriko dela Italiatik Lasarte-Oriara. Horrez gain, Ormazabal loradendaren 100. urteurrenean parte hartuko dugu, otsailean. Horri lotuta, hemengo eragile bat garen neurrian, beti gaude prest herriko ekimenean parte hartzeko.

Alboka Abesbatza, Errenterrian garaile


Alboka Abesbatzak urte bikain bat biribildu zuen joan den abenduaren 30ean, Errenterrian aurrera eramaten duten Gabon kanten lehiaketaren 77. aldia irabazita. Beste sei talderekin batera aritu zen, Galtzaraborda kiroldegian: Errenterriko Garrintzi, Gazte Kemena eta Galtzagorri; Irungo IGA; Soroluzeko Ezoziko Ama; eta Iruñeko Gizonok. Lasarte-Oriako eragile horretako kideek David Azurzaren *Birjiña maite* eta Javier Bustoren *Bi Eguberri Kanta* eskaini zituzten.

Emanaldi hori izan zen epaimahaiko kideei (Francisco Escudero kontserbatorioko irakasle eta konposatzaile Eva Ugalde, Ametsa Txikiko nahiz Orfeoi Gazteko zuzendari Leticia Vergara eta Oñatiko Ganbarako nahiz EHUKo abesbatzako zuzendari Aitor Biain) gehien gustatu zitzaiena. Soroluzeko Ezoziko Ama taldea izan zen bigarren, eta, hirugarren, Errenterriko Galtzagorri.

Amaitzeko, Albokako zuzendari Montse Latorrek partaide guztiek elkarrekin abestu zuten *Ator*, *ator* gidatu zuen.




Albokako kideak, pozarren, Errenterriko lehiaketa irabazi zutela jakin eta gero. ALBOKA ABESBATZA



SUDOKUA



Hau kiratsa!!! Arrautza ustelen bat hautsi da? Paper fabrikan lanean ari dira? Arranopola, zer gertatu da hemen?! Bete itzazu hutsuneak KIRATS hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (K, I, R, A, T eta S). Kontuan har hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Zure ustez kiratsaren iturria izan litekeen hori marraz ezazu laukian.

Gaiztometroa




B	L	A	C	K	I	S	B	E	L	T	Z
N	O	I	R	E	G	I	X	K	U	N	I
		(H	K	B	O	R	T	Z	I	R
!	(U	N)	E	S	K	E	L	E	N
M	U	R	M	I	L	K	A	W	?	S	=
K	R	I	M	I	B	A	L	I	S	T	I
U	R	G	A	I	N	E	L	T	U	L	A
Z	U	Z	T	A	R	B	I	Z	B	A	T
X	/	O	Q	!	F	P	E	A	D	U	E

Hiltzailerik zikoitzenak eta detektiberik petralenak Baztanen biltzen dira urtarrilean. Ba al dakizu zergatik? Nobela beltzaren astea antolatzen dutelako han, hain zuen. Eta ba al dakizu zer izen duen jaialdi horrek? Ez? Jarraitu gezien norabideari, eta bidean batzen dituzun hizkiak idatzi lauki zurietan, hurrenez hurren. Hortxe aurkituko duzu erantzuna.


HANDIENETIK TXIKIENERA

Ordena itzazu handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienerari 9.






Lagundu gure detektibe pareari gaizkilearen arrastoa jarraitzen. Labirinto honetan giza urratsak dituzten laukietatik joan behar duzu, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina ezin duzu diagonalean mugitu.



Osatu

Hara, ba azkenean ez zegoen gaizkilerik, gure maskota Zangotxoren txantxa bat besterik ez zen, galtzerdiak eta oinetakoak jantzita ibili baita labirintoan. Marraztu iezazkiozu.



Zeeer?!!

Eman irudiño bakoitzari bere hizkia, eta esandakoa deskubrituko duzu. Erabili beheko alfabetoa.



HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

A	B	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N			
O	P	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	.	,			

Ainhoa Martin, garaile Ordiziako Sarian

Lasarte-Oriako igerilariak lehian izan dira Gabonetako Nazioarteko Sarian. Euskal Selektioarekin lehiatu diren Ainhoa eta Leire Martin ahizpak finaletan egin dute igeri eta lehen postuetan izan dira. Buruntzaldea IKTKo gazteek euren markak ondu dituzte

Txintxarri

Gabonetako 41. Nazioarteko Saria jokatu zen abenduaren 29an, Ordiziako Majori igerilekuan. Buruntzaldea IKTKo Garazi Etxeberria, Miren Sarobe eta June Lopezek gain, Ainhoa eta Leire Martin ahizpak Euskal Selektioarekin lehiatu ziren. Bi ahizpak finaletarako sailkatu eta lehen postuetan amaitu zituzten euren saioak. Ainhoak gainera txapela jantzi zuen 200 metro lau estilo probako markari esker.

Bi ahizpek hiruna probatan egin zuten igeri. Ainhoak bular estiloko 50 m. (33,50) eta 100 m. zein 200 m. lau estiloko sailkapenak gainditu zituen, baina

bular estiloko proba motzari uko egin zion arratsaldeko finaletan. Bi saioetan goizeko markak hobetu eta garaile izan zen; 100 m. bular proba, 01.09,41 eta 02.14,87. Azken marka horrekin, FINA sailkapeneko 737 puntu eskuratu zituen gazteak eta horri esker, lehiaketako sari nagusia eta txapela jaso zituen. Gredos San Diego taldeko Sara Costa de Vicente (100 m. bizkar, 01.00,85; 734 puntu) eta CN Barcelonako kide Mireia Pradell Carrasco (50 m. bizkar, 28,16; 720 puntu) izan zituen lagun podiumean.

Leirek, aldiz, 50 m. eta 100 m. (01.02,22) bizkar eta 200 m. lau estilo probak egin zituen eta hi-



Ainhoa Martin, lehiaketako txapela eta sariarekin. BIDASOA XXI

ruetan finaletarako txartela eskuratu zuen. Hala ere, bizkar estiloko proba luzeko finala ez zuen jokatu. Lehiatutako finaletan kanporaketako markak ondu -50 m. bizkar, 28,69 eta 200 m. lau estilo, 02.17,23- eta hirugarren postuan sailkatu zen bietan.

Marka pertsonalak

Buruntzaldea IKTKo kideak ere bikain aritu ziren denboraldiko lehen hitzordu garrantzitsuan. Nahiz eta txapelketaren maila altuaren ondorioz finaletarako ezin sailkatu, markak ondu eta euren prestakuntza aurrera doala erakutsi zuten.

Garazi Etxeberriak bizkar erako 50 metroetan (31,46) eta 50 m. libre (27,60) probetan bere marka onenetatik gertu ibili zen. Goizeko hirugarren proba, 100 m. libreetan, nekea somatu eta amaitzea kosta arren, 01.00,23 egin eta bai igerilaria baita prestatzaileak ere gustura geratu ziren emaitzarekin. Hiru marka horiekin finaletarako ordezkio modura geratu zen Etxeberria.

Miren Sarobek egindako bi saioetan igerileku laburreko marka pertsonalak berriitu zituen.

50 m. librean 28,95 egin zuen eta 100 m. librean, berriz, 01.02,38. "Miren oso gustura, indartsu, hutsik egin gabe eta gogoz aritu da entrenamenduetan zehar eta hori nabaria izan da oraina arte egindako lehiaketetan; eta hitzordu hau ez da gutxiago izan", aipatu dute Buruntzaldea IKTKo prestatzaileek.

Azkenik, June Lopezek bizkar erako 100 metroko lehiaren parte hartu zuen. Entrenatzaileek jakitera eman dutenez, Lopezek sorbaldako lesio txiki bati aurre egin dio azken hilabeteetan eta ondorioz, ezin izan du "behar den bezala" entrenatu. Ahalik eta egoera fisiko onenean iristen saiatu dira eta lanak fruitua eman du; 01.13,05 markarekin bere erregistro onenetik bi segundo-ra geratu zen.

Euskal Selektzioa

Ez da hau Eguberrietan Buruntzaldea IKTKo kideek izan duten berri on bakarra. Iker Garciak Euskal Selektioaren deia jaso du eta infantil eta junior mailako Erkidegoen arteko txapelketan lehiatuko du hilaren 19tik 21era, Palman (Balear Uharteak).

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Ostadar SKT - Goierri Gorri FK Igandea. 16:35. Michelin kirol gunean.
GORENGOEN MAILA
Ostadar SKT - Orioko FT Larunbata. 16:45. Michelin kirol gunean.
ERREGIONALEN I. MAILA
Texas Lasarteerra CF - Ostadar SKT Larunbata. 18:40. Michelin kirol gunean.
OHOREZKO JUBENILA
Beti Gazte KJKE - Ostadar SKT Igandea. 16:00. Mastegi, Lesaka, Nafarroan.
JUBENILEN I. MAILA
Texas Lasarteerra CF - Ostadar SKT C Larunbata. 14:50. Michelin kirol gunean. Ostadar SKT B - Beti Ona CD B Igandea. 18:20. Michelin kirol gunean.
OHOREZKO KADETEA
Ostadar SKT - Martutene KE Igandea. 14:40. Michelin kirol gunean.
KADETEEN I. MAILA
Ostadar SKT C - Kostkas Mariaren Bihotza CD D Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunean. Texas Lasarteerra CF - Lazkao KE C Larunbata. 11:20. Elbarrena, Zizurkilen. Billabona KE B - Ostadar SKT B Igandea. 18:15. Arratzain, Villabona. Ostadar SKT (neskak) - Antigua Luberri KE Igandea. 12:55. Michelin kirol gunean.

INFANTIL HANDI, KOPA
Añoa KKE - Ostadar SKT Larunbata. 10:30. Rezola, Donostian.
INFANTIL TX., TXAPELDUNEN FASEA
Mondragon CF - Ostadar SKT Larunbata. 13:00. Mojategi, Bergaran.
INF. I. MAILA, TXAPELDUNEN FASEA
Texas Lasarteerra CF - Beti Ona CD Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
INF. I. MAILA, UDABERRIKO KOPA
Beti Ona CD B - Ostadar SKT Igandea. 09:30. Beraun, Errenteria.
ARETO FUTBOLA
I. MAILA
Laburu KE Ibarra - Eguzki Arkupe Rehab. Ostirala. 20:30. Belabieta kirol., Ibarra.
III. MAILA
Eguzki ISU Leihoak - Eibartarrak FT Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
GAZTEEN MAILA
Eguzki B. Ayesa - Antiguoko KE Font. Iribarren Larunbata. 12:15. Maialen Chourraut kirol.
KADETE MAILA
Eguzki G. Goxua - Antiguoko KE Carpinteria Igandea. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
INFANTIL MAILA
Antiguoko KE A - Eguzki B. La Escalerilla Larunbata. 13:30. La Asunción ikas., Donostian.

SASKIBALOIA
I. MAILA
Ostadar SKT - Mondragon Unibertsitatea Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
III. MAILA
Ostadar SKT - Zalburdi Debasket Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.
JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA
Aloña Mendi KE - Ostadar SKT Larunbata. 12:00. Zubikoa kirol., Oriatin.
K. ERRENDIMENDUA, IGOERA FASEA
Saski Axular - Ostadar SKT Larunbata. 12:30. Bidebieta kirol., Donostian.
KADETE PARTAIDETZA
TAKE Ernio - Ostadar SKT Larunbata. 10:45. Usabal kirol., Tolosan.
INFANTIL ERRENDIMENDU URREA
Ostadar SKT - Luberri Ibaeta IVF Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
INFANTIL PARTAIDETZA
Plastigaur - Ostadar SKT Larunbata. 09:00. Allurralde kir., Andoainen. Aloña Mendi KE - Ostadar Beltza Larunbata. 12:00. Zubikoa kirol., Oriatin. Ostadar Urdina - Aldapeta Maria ik. Txuriak Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol. Ostadar Beltza - TAKE Uzturre (aurreratutako neurketa) Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

BOLEIBOLA
EUSKAL LIGA
Arizmendi ikastola - Ostadar SKT Larunbata. 17:00. Ibarra kirol., Aretxabaletan.
EUSKAL LIGA, II. MAILA
Ostadar SKT - G. ELEYCOUDAPA Jatorikide Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
SENIOR MAILA
Tolobolei - Ostadar SKT Ostirala. 20:00. Herrikide ikas., Tolosa.
JUBENIL MAILA
Aldapeta Maria B - Ostadar SKT Larunbata. 17:30. Aldapeta Maria ikas., Donostian.
KADETE MAILA
Ostadar SKT - Aldapeta Maria B Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
INFANTIL MAILA
Ostadar SKT B - Arizmendi 2 Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol. Ostadar SKT A - Hernani KE 2 Larunbata. 12:00. Hernaniko kiroldegian.
IGERIKETA
HERNANIKO SARIA
Buruntzaldea IKTKo igerilariak 25. Hernaniko Sariari egingo diote aurre. Larunbata. 15:00. Hernaniko kiroldegian.
PILOTA
GOMAZKO PALETA, 2. SENIORRA
Intza KE (Mendizabal) - Hernani Ostirala. 19:30 (3. partida). Loidibarren pil.

UDABERRI TX., 2. SENIORRA
Intza KE - Zazpi Iturri Larunbata. 16:00 (2. partida). Michelin kirol guneko pil.
ESKUZ BINAKA, 2. INFANTILA
Intza KE 2 - Hernani 1 Ostirala. 19:30 (1. partida). Loidibarren pil. Intza KE 1 - Behar Zana 2 Ostirala. 19:30 (2. partida). Loidibarren pil.
ESKUZ BINAKA, 3. INFANTILA
Intza KE - Goierri 3 Larunbata. 16:00 (1. partida). Michelin kirol guneko pil.
ERRUGBIA
EUSKAL LIGA, II. MAILA
Lar Unica- Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT Larunbata. 16:30. UPNA, Iruñan.
ATLETISMOA
EUSKADIKO TXAPELKETA
Lasarte-Oriako atletak Euskadiko txapelketa lehiatuko dute. Larunbata eta igandea. Antonio Elortza belodromoa, Donostian.
XAKEA
II. MAILA
Taula A - Beraun Bera B Larunbata. 16:00. Blas de Lezoko lokalean.
III. MAILA
Taula B - Billabona E Larunbata. 16:00. Blas de Lezoko lokalean.

Eider Redondo, Euskadiko txapeldun

Ostadar SKTko atleta gaztea proba konbinatueta Euskadiko txapelketan garaile izan da 16 urtez azpiko kategorian. Bost proba egin eta lehen postuetan sailkatu da guztietan. Juan Muguerza Nazioarteko Krosean ere izan da herritarrik lehia

Txintxarri

Ostadar SKTko eta herriko atletak ez dira geldirik izan Gabonetan. Urteari amaiera emateko egin diren San Silvestre edo bestelako probez gain, pistako eta krosetako lehiatan parte hartu eta podiumera igo dira.

Hilaren 4an eta 5ean, Euskadiko proba konbinatueta txapelketa jokatu zen Donostiako Antonio Elortza Belodromoan. Bigarren egunean, 16 urtez azpiko proban talde urdin-beltzeko Eider Redondok parte hartu eta txapela irabazi zuen.

Herriko atleta gazteak bere lehen pentatlo federatua zuen. Urduritasuna alde batera utziz, jardun egonkorra egin zuen eta lehen postuetan izan zen lehiatutako bost probatan. 60 metro hesi lasterketan (9,87) zein luzera jauzian (5,10 m.) bigarren sailkatu zen Redondo; altuera jauzian (1,39 m.) zein pisu jaurtiketan (8,57 m.) hirugarren amaitu du lehia eta azken proban, 600



Eider Redondo (argazkian erdian), Euskadiko txapelketako podiumean. G. REDONDO

metro lasterketan eskuratutako garaipenari esker jantzi zuen lasarteoriatar gazteak urrezko domina.

Markak eta heziketa

Ez da hau herriko atletek izan duten proba bakarra. Txapelketa garrantzitsuak izango dituzte hurrengo asteetan, lehena Euskadiko txapelketa hilaren 13an eta 14an eta bertan borrokatu ahal izateko gutxienezko markak esku-

ratzeko saioak izan zituzten abenduaren 22an eta 29an.

Lehiatzeaz gain, ikasten ere izan da Naroa Furundarena. Espainiako Federazioak Castellon (Valentziar Herrialde) antolatutako jauzi proben saio berezian izan zen talde urdin-beltzeko kidea hilaren 2tik 5era.

Krosa Elgoibarren

Hilaren 7an, berriz, Elgoibarren 80. Juan Muguerza Nazioarteko

Hitzaldia eta neguko irteera

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkartek (LOTME) otsailen bi jardura berezi eramango ditu aurrera. Hilabete hasieran, otsailaren 2an zehazki Alex Txikonekin bildu ahalko dira herritarrek. Hitzordua Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoan izango da, 19:00etan. Alpinista betereoaren ibilbidea izango dute solasgai, baita bideo bat ikusi ere. Ostean, ikusleek galderak egiteko aukera izango dute.

Bizkaiko mendizalea neguan mendi esanguratsuen gailurra egiteagatik da ezaguna. 2023. urtean Manaslu-n izan zen eta orain Annapurna igotzen ari da.

Sarrera doakoa den arren, hitzaldiko plazak mugatuak dira. Beraz, ekimenera joan nahi duten herritarrek elkarteko webgunearen bitartez izena eman behar dute.

Neguko irteera

Eta hil horretako azken asteburuan, otsailaren 24-25, neguko irteera egingo dute Tena bailaran, Huescan.

Ez da txango soila izango, ekimenean goi mendiko tokiko gida batek mendian neguan ibiltzeko hainbat alderdi erakutsiko ditu, hala nola, ingurunearen interpretazioa, baldintzen eta taldearen arabera eraman beharreko gutxienezko materiala, neguko mendiko oinarrizko materiala (erraketak, pioleta eta kranpoiak) behar bezala erabiltzea edo elur jausietan erreskatatzeko materialarekin praktika. Asteburuko ekimenaren gaineko informazioa, prezioa eta izena emateko formularioa LOTMEren webgunean daude eskuragarri.



LOTME

Krosa lehiatu zen. Parte hartzaileen artean, Zumeatarra taldeko Aimar Sukunza Gomez eta Aloña Mendi taldeko Jon Presa Herranz herritarra izan ziren lasterka. Maila handia

izan zen proban eta bi herritarrek azken metroak beste bi korrikalarirekin batera egin zituzten lauak eskutik hartuta. Beraz, helmugan marka bera egin zuten, 36.28.

Begiristain anaiek pala motzeko Gipuzkoako txapela jantzi dute

Errepalako kideek EPLE 2 bikotea garaitu dute 2. mailako finalean. Intzako pilotariak txapelketa berriak hasiko dituzte

Txintxarri

Maila eta pilota modalitate ezberdinetako Gipuzkoako txapelketak jokatu dira abendu eta hil honen hasieran. 2. mailako Pala motzeko finalean Lasarte-Oriako ordezkariak izan ziren, Jon eta Mikel Begiristain anaiek. Hilaren 7an, Altzako pilotalekuan lehiatu zuten eta EPLE 2 (Aitor Estefano eta Abel Pichel) eta Errepala taldeko bikoak izan ziren aurrez aurre. Lasarteoriatarrek izan ziren nagusi.

Ez zen bikoteak indarrak neuritzen zituzten lehen aldia. Lehia-

ketako lehen fasean B multzoan zeuden Errenteriako zein Donostiako taldeetako ordezkariak eta bigarren jardunaldian, borrokatu ziren bata besteen aurka; Lasarte-Oriako jokalariek puntu batengatik gailendu ziren. Bost partidaren ostean, launa garaipen eta porrot batekin bi bikoteek aurrera egin zuten txapelketan.

Finalerdietan Errepalako herritarrek 40-29 gairiditu zuten Oingu 3 eta EPLE 2 EPLE1en aurka aritu zen; 17-40.

Norgehiagoka berdindua espero zen, beraz. Baina Begiristain



Mikel eta Jon Begiristain anaiek, txapela eta garaiakurrarekin. BEGIRISTAIN FAMILIA

anaiek hasieratik aurre hartu (2-6) eta aldea mantentzea lortu zuten. Ia akatsik gabeko neurketa egin zuten eta aurkariak gerturatzeko aukera gutxi eman zieten. Ondorioz, Begiristain anaien aldeko 33-40eko markagailuarekin amaitu zen nor-

gehiagoka. Txapela jantzeaz gain, 1. mailarako igoera ere lortu dute herritarrek.

Gabonetan ere lehia

Horrez gain, Intza Kirol Elkarteko Itxaso Iparragirrek Donostiako Atano III.a pilotalekuan

jokatu zen Gabonetako txapelketan parte hartu zuen hilaren 3an. Alde Zaharrako Sorondo eta Mundarroko Zabala pilotarien aurka neurtu zituen indarrak herritarrek eta bi norgehiagoketan aurkaria gailendu zen, 10-5 eta 7-10 hurrenez hurren.

Txapelketa berriak

Urtarrilean sartzearekin batera lehiaketa berriei aurre egingo diete herriko pilotariak eta txapelketa ezberdinetan murgilduko dira.

Gomazko paletako bakarkako 2. mailako lehia ekingo du Ja-goba Mendizabalek.

Eskuz binakako Udaberri txapelketa lehiatuko dute seniorrek 2. mailan.

Alebin eta infantil mailako kirolariak, aldiz, Gipuzkoako binakako txapelketa hasiko dute.



Saskibaloitxapelketan parte hartu zuten taldeek amaieran argazkia egin zuten (ezkerrean). Saillkapen fase zein finalerdiaren irudiak (erdia eta eskuina). TXINTXARRI

3x3 lehiaketak harrobia dagoela erakutsi du

Ostadar Saskibaloia sailak antolatutako 3x3 txapelketa Maialen Chourraut kiroldegira itzuli da. Benjamin, alebin, infantil zein kadete taldeek parte hartu dute. Saskibaloiaz gozatu eta, goiza amaitzean, orogarriak eraman dituzte jokalariek guztiek

Felix Manso, beterano mailako Gipuzkoako xake txapeldun

Gabonetako hainbat lehiaketetan ere izan dira herritarrak. Taldekako liga hasiko da asteburuan

Txintxarri

Beterano mailako Gipuzkoako Xake txapelketa jokatu zen abenduaren 26tik 30era, Bidasoa Xake klubeko egoitzan, Irunen. Lasarte-Oriako Taula Xake klubeko kiderik lehiatzen egon ez bazen ere, Felix Manso herritarrak garaikurra eskuratu zuen.

Zazpi partida jokatu zituen Mansok; bostetan garaile atera zen eta beste bietan taulak egin zituen. Beraz, sei puntu batu zituen guztira. Josu Tornay (5,5 p.) eta Ulrik Ortiz Rasmussenek (5 p.) osatu zuten podiuma.



Felix Manso, garaikurrarekin. BIDASOA XAKE KLUBA

Gabonetan lehiatzen

Txapelketa ofizialak ez ezik, torneo ezberdinak ere jokatu dira azken asteetan eta herriko xake jokariak izan dira horietako batzuetan.

Abenduaren 28an, esata baterako, Gabonetako Xake Txapel-

keta izan zen Zumaian. Lehiatzen parte hartu zuten Taulako bost kideen artean Erlantz Sanchez izan zen saillapenean lehena.

Eta hilaren 7an, Errenteria Hiriko Errege eguneko II. Open Aktiboa izan zen. Gros Xake

Taldean dagoen Alex Rodriguez herritarra izan zen Lasarte-Oriako ordezkarien artean hoberena eta Taula Xake Klubeko artean, Daniel Vegas gaztea.

Taldeko txapelketa

Urtea hasterekin batera, Gipuzkoako taldekako txapelketak ere emango ditu lehen pausoak. Aurten berrikuntzekin datoz Lasarte-Oriako Taula Xake klubeko kideak, bi talde izango dituzte lehiatzen, Taula A eta B.

Iaz hirugarren mailako txapeldunorde izan ostean, maila igoera lortu zuten herriko klubeko kideek. Horri esker, A taldea 2. mailan lehiatuko da.

Bi multzotan berezi dituzte bigarren kategorian horretako aurkariak eta Lasarte-Oriako jokalariek Gros, Astigarraga, Billabona, Errenteria eta Irungo taldeei egin beharko diete aurre.

B taldeak, aldiz, Gipuzkoa osoko taldeen aurka neurtu beharko ditu indarrak hirugarren mailan.

Etxean izango dute biek lehen lehia hilaren 13an, 16:00etan; Taula Ak Beraun-Bera B eta Taula Bk Billabona E izango dituzte aurkari.

Txintxarri

Goizeko lehen ordutik saskibaloia protagonista izan zen abenduaren 30ean Maialen Chourraut kiroldegian. Urte batzuetako parentesiaren ondoren, Ostadar Saskibaloia sailak berreskuratu egin zuen 3x3 txapelketa. Aurrekoetan ez bezala, oraingoan goizera mugatu zen txapelketa.

Parte har zezaketen kategorien bakoitzeko txapeldunek eta txapeldunordeek ere beste opari batzuk eskuratu zituzten.

fantil eta kadete mailatan banatuta guztira 22 talde borrokatu ziren sari nagusia eskuratzeko.

Zortzi minutuko neurketak izan ziren, saski bakarrekin. Puntu gehien pilatutakoek finalerdiak jokatu eta ostean, final handiak ikusi ziren. Parte hartu zuten talde guztiek jaso zuten oraio garrantzirik; eta kategorian bakoitzeko txapeldunek eta txapeldunordeek ere beste opari batzuk eskuratu zituzten.

Ostadarreko taldeek Gipuzkoako txapelketa hasiko dute

Senior, jubenil, kadete eta infantil mailako taldeek ikasturteko lehia nagusiari aurre egingo diote

Txintxarri

Urritik abendura lehen fasean taldeak osatu, egonkortu eta sendotu ostean, Ostadar Boleibola saileko kideek Gipuzkoako mailako hitzordu garrantzitsuari emango diote hasiera hilaren 12-14ko asteburuan, Gipuzkoako txapelketari.

Senior mailako taldeak multzo bakarreko lehia izango du. Tolobolei, Vendetta M., Ipar Titanak eta Hernani KE taldeen aurka neurtu beharko ditu indarrak hiru itzulitarako; maiatz erdialdera arte izango dituzte jardunaldiak.

Jubenil, kadete eta infantil mailatan, berriz, bi multzo egin dira eta mailaren arabera joko sistema ezberdina izango da.

Jubenilek itzuli bateko liga jokatu dute martxora arte. Orduan, multzo bakoitzeko lehen hiru saillkatuek beste ligaxka



Lehen faseko kadeteen neurketa. TXINTXARRI

bat jokatu dute Gipuzkoako irabazlea erabakitzeko.

Kadete eta infantil mailan kasuan ere itzuli bateko ligaxka izango da, baina horrek maiatzera arte iraungo du. Multzo bakoitzeko lehen bi taldeek hil horretan jokatu diren finalerdiarako txartela eskuratu dute.

Ostadar Boleibola taldeko kideek euren onena emango dute lehen postuetan egon ahal izateko.



Gabonetako Areto Futbol Txapelketako irabazleak. Ezkerretik eskuinera, Andoain Team (benjamin), Eguzki FC24 (alebin) eta Los Fiscochasis (infantil). EGUZKI AF

Gabonetan ere areto futbolaz gozatzen

Eguzki Areto Futbol taldeak antolatutako Gabonetako txapelketako finalak jokatu dira. Giro ederra izan da azken neurketetan. Guztira 180 bat gaztetxok parte hartu dute lehiaketan. Eguzkiko Aratz Fuentes, aldiz, Euskadiko selekzioarekin izan da lehiatzailea.

Txintxarri

Andoain Team, Eguzki FC24 eta Los Fiscochasis taldeek Gabonetako Areto Futbol Txapelketako sari nagusia eskuratu zuten. Hilaren 7an, Maialen Chourraut kiroldegian jokatu ziren finaletan giro ederra izan zen. Txapelketako azken neurketak jo-

katu behar zituzten taldeek senide, lagun eta gainerako aurkarien babesa izan zuten.

Benjamin mailako Superlagunak-Andoain Team norgehiagokak eman zion hasiera jardunaldiari. Ostean, alebinen txanda izan zen, Eguzki FC24-Oken-do Team eta azkenik, infantilen

arteko Los Fiscochasis-Best Juniors partida jokatu zen.

Lehen eta bigarren sailkatuz gain, gainerako taldeek ere jaso zuten oroigarririk. Era horretara, Eguzki Areto Futbol taldeak antolatutako lehiaketan parte hartu duten 180 gaztetxoak bildu ziren kantxan.

Herriko taldeak, Gabonetako futbol torneoetako finalak

Texas Lasartearra CFko jubenila Lazkaon garaile izan da; Ostadar SKTko Kadete ohorezkoa, berriz, txapeldunorde Ordizian

Txintxarri

Lasarte-Oriako futbol taldeak ez dira Gabonetan geldirik egon. Maila ezberdinetako hainbat txapelketetan parte hartu dute eta horietako batzuetan lehen postuetan izan dira.

Texas Lasartearra CFko jubenilak, abenduaren 27an, Lazkaoko Gabonetako Torneoeko garaile izan zen etxeko taldea finalean garaitu ostean.

Hurrengo egunean, Ostadar SKTko Kadete mailako taldeak Ordiziako txapelketako finala jokatu zuen Gipuzkoako



Texaseko jubenilak, garaikurrarekin. LAZKAO KE

selekzioaren aurka. Azken hamar minutuetan egin zion ihes neurketak talde urdin-beltzari. Hala ere, Dani Jimenezek finaleko jokalarari onenaren saria jaso zuen.

Herriko bi taldeen alebinak, berriz, Realak antolatutako txa-

pelketan parte hartu zuten abenduaren 23an eta talde urdin-beltzeko infantil txikia Realaren nazioarteko txapelketako sailkapen fasea jokatu zuen hilaren 2an. Ez bata ez besteek ez zuten azken faserako txartela eskuratu.

Liga martxan

Horrez gain, maila batzuetan jardunaldia jokatu zuten hilaren 5-7ko asteburuan.

Kadete I. mailako jokalariek, esate baterako, derbiarekin hasi zuten urtea. Multzoko bigarren postuan zegoen jokoan eta neurketa borrokatua izan zen. Ostadar SKT 2-1 garaitu zuen Texas Lasartearra CF.

Urteko bigarren jardunaldian ere Michelin kirol gunean izango dira derbiak, Erregionalean zein jubenil I. mailan zehazki.



Lehiaketan parte hartu zuten talde guztien argazkia. EGUZKI AF

Euskadi, kanporatua

Abenduaren 27tik 29ra areto futboleko 16 eta 19 urtez azpiko Erkidegoen arteko Espainiako txapelketako sailkapen fasea jokatu zen egoitza ezberdinetan.

Euskadiko selekzioek Alcazar de San Juan, Gaztela Mantxan lehiatu zuten lehen fase hori eta 16 urtez azpiko taldean Lasar-

te-Oriako ordezkari bat izan zen; Eguzki Areto Futbol taldeko Aratz Fuentes.

Gaztela Mancha (13-0), Errioxa (3-4) eta Balear Uharteren (4-1) aurka jokatu eta neurketarik ezin izan zuten irabazi Fuentes kide zuten taldeak. Ondorioz, 16 urtez azpiko Euskadik ez du azken fasea jokatuko.



Gorriri omenaldia egin zitzaion, beterano mailako neurketa baino lehen. TXINTXARRI




Omenaldi beroa eta lagunarteko lehia

Abenduaren 30ean, Ostadar SKT bere 40. urteurren urtea agurtu zuen. Michelin kirol guneko ekimena omenaldi hungarriarekin hasi zen. "Etxeko" kide den Jose Manuel Loyarte Gorri omendu zuten. Urte hauetan guztietan elkartean lanean egon da eta aurten utzi ditu entrenatzaile lanak. Ostean, beterano mailako Ostadar eta Real Sociedad taldeen arteko norgehiagokaz gozatu zuten herritarrek. Lehia, golak, lesioak... denetarik izan zen lagunarteko neurketan. Eta atsedendiko zozketari esker, etxera esku hutsik joan ez zen ikuslerik ere egon zen.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Beñat
Zorionak politta!
Ondo ondo pasa zure 7. urtebetetzean, pilla-pilla maite zaitugu! Muxu erraldi bat familia osoaren partetik.



Maddi
Mekauen San Pedro! "Muy heavy" oraindik hamaiketakoak ekarri ez izana... 'gildainteresarekin' kobratuko dizugu! Prestatu inauterietako "basoa" sagardotegin betetzeko!

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 12	GIL
LARUNBATA, 13	GIL
IGANDEA, 14	GIL
ASTELEHENA, 15	LASA
ASTEARTEA, 16	GANDARIAS-URIBE
ASTEAZKENA, 17	URBISTONDO
OSTEGUNA, 18	GANDARIAS-URIBE

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia:
Mañe I Flauquer plaza 6, Hernani.
943-57 64 77

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com
com webgunean eskuragarri.

OHARRAK

Zozketako zenbakia

Ttakun Kultur Elkarteak San Tomas egunean urdaiazpiko eder baten zozketarako rifak saldu zituen. Zenbaki sariduna 0140 izan zen, oraindik ez da irabazlea atarra. Beraz, zenbaki sariduna baduzu jar zaitetz gurekin harremanetan 943-37 14 48 edo 695 78 53 89 telefono zenbakietan. Hilaren 21ean izango da jasotzeko azken eguna.

ESKUTITZA

Udalari kexa

G.A.

Hozkailua, refrigerateur, fridge, frigorífico... Ez dakit nola esan ulertu dezaten. Negu gorrian gaude! Nahikoa da!!! Behartsuari jana lagatzeko behar dugu.

Zein bihotz gogorak, zuhurrak eta zikoitzak zareten.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoiki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

GARAJEA

ALOKATU

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsalde deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKAINITZA

Lasarte-Orian interna modura lan egiteko emakumea behar dut. Baldintza onak eskaintzen dira. Informa beharrezkoak. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Lanaldi erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabilta. Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644 11 61 22.

ESKARIA

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Umeekin esperientzia daukat. Harremanetarako telefona: 695 18 41 79.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Garzea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketaria...) FP-2 mekanizatua egina dut. Zubietan bizi naiz. 602 08 25 83.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. 602 08 25 83.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitetz gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

ESKELA

ESKELA

Jesus Anabitarte Arruti

2024ko urtarrilaren 2an hil zen Lasarte-Orian, 87 urte zituela

—Goian bego—

Besarkada handi
bat familiari



TTAKUN KULTUR ELKARTEA

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoiki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Nikola Iraola, Xuban Urdaleta, Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoiki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN
Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 12

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak hilabeteko lehen emanaldia egingo du, *El maestro que prometió el mar* filma proiektatuta. Sarrerek 6 euro balio dute.

Manuel Lekuona Kultur Etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 13

LASARTE-ORIA Literatura

Bookstart Euskadi programaren barruko Liburu Baby Klubaren hirugarren saioa aurrera eramango dute. Doakoa da jarduera.

Udal Liburutegia, 11:00etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Teatro Paraiso konpainiak *Kutxartean* antzezlanaren emanaldia egingo du. Sarrerek 4 euro balio dute.

Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Musika

Euskal afrobeat estiloa jorratzen duen Makulu Ken talde lasarteoriatarrek Agour Tour birako emanaldia egingo du. Ondoren, Flor de Otoño DJarekin jarraituko du festak. Sarrera, doan.

Jalgi kafe antzokia, 19:30ean.

IGANDEA 14

LASARTE-ORIA Ekitaldia

Oroimen historikoaren alde lan egiten duen Islada Ezkutatuak taldeak, Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean, omenaldia egingo dio Oria auzoari, bertan dauden argazki historikoen segidari beste bat gehituta. 1936ko gerran borrokatu zuen Rosa Luxemburgo bataloiaren irudi bat jarriko du.

Karmengo Ama kapera, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Boo Kwai eta museoaren lapurreta filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.

Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:00etan.



LASARTE-ORIA Kontzertua

Makulu Ken talde lasarteoriatarrek "etxean etxekoentzat despedida" izango den kontzertua emango du, zenbait gonbidatu berezirekin batera. Ondoren, Flor de Otoño DJarekin jarraituko dute Agour Tour deitu duten festa.

Bihar, hilak 13, Jalgi kafe antzokian, 19:30etik aurrera.

LASARTE-ORIA Zinema

Napoleón filma proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.

Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:30ean.

ASTEAZKENA 17

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Haur eta nerabeen emozioen bidelagun: nola zaindu seme-alaben emozioak hitzaldia emango du Donna Apellaniz terapeuta emozional sistemikoak. Parte hartu nahi dutenek kultura@lasarte-oria.eus helbide elektronikoan izena eman behar dute.

Antonio Mercero aretoa, 18:00etan.

IGANDEA 21

LASARTE-ORIA Zinema

Wonka filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.

Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Ocho apellidos marroquis filma proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 19:30ean.

OSTIRALA 26

LASARTE-ORIA Zinema

El viejo roble filma proiektatuko du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 27

LASARTE-ORIA Literatura

Liburu Baby Klubaren laugarren saioa aurrera eramango dute. Doakoa da jarduera.

Udal Liburutegia, 11:00etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Erik eta Win antzezlanaren emanaldia egingo du Buhameak konpainiak.

Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 20:00etan.

IGANDEA 28

LASARTE-ORIA Zinema

Kina y Yuk filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek, 4 eurotan.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Anatomía de una caída filma proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 19:30ean.

ZINEMA



LABURPENA

'El maestro que prometió el mar'

Zuzendaria: Patricia Font. **Gidoia:** Albert Val (Francesc Escribanoren eleberrian oinarrituta). **Argazkia:** David Valdeperez. **Ekizleak:** Minoria Absoluta, Lastor Media. **Herrialdea:** Espainia (2023). **Iraupena:** 105 minutu. **Generoa:** Drama. **Aktoreak:** Enric Auquer, Laia Costa, Luisa Gavasa, Ramon Agirre.

Ikasgelatik, itsasora

Ariadnaren (Laia Costa) aitona bere aitaren gorpuzkien bila ari da; luze darama desagertuta, 1936ko Espainiako gerratik hain zuzen ere. Bilobak aitona laguntzea erabakiko du eta Burgosera bidaiatzea berarekin, bilaketarekin jarraitzeko. Hobi komun bat exhumatuko dute haien senidea han egon daitekeelakoan, eta, bien bitartean, Ariadnak aitona irakasle izan zen Antoni

Benalges-en (Enric Auquer) berri izango du. Garai horietan ezohikoa zen irakaskuntza metodo bat aplikatu zuen eta bere ikasleei honakoa zin egin: itsasoa ikustera eramango zituela egunen batean.

Patricia Font zuzendariaren film luze honek izendapen ugari lortu ditu zenbait zinemaldi eta jaialdi entzutetsutan, hala nola, Goya sarietan.



LABURPENA

'Boo Kwai eta museoaren lapurreta'

Zuzendaria: Wang Yunfei. **Gidoia:** Huazheng Wui, Wang Yunfei, Xiaoyu Wu. **Musika:** Lei Yao. **Ekizleak:** Beijing Itscaroon Cultural Communication, Shanghai Film Unifield. **Herrialdea:** Txina (2022). **Iraupena:** 101 minutu.

Generoa: Animazioa, abenturak. **Aktoreak:** Wentao Chang, Tut Harmon, Hanlin Li, Lanling Li, Zhifu Liu, Yan Meme, Xin Shan, Xinzhu Tong, Ning Yang eta Tong Yin.

Abentura eroa

Unibertso berri batera iritsiko da Boo Kwai ume bihurria, bere asmakizun batek hara eramanda. Abentura ero batean murgilduko dira gizon batek Shu Zaharraren Urrezko Bastoia lapurtzen duenean; erlikia hori berreskuratu eta dagokion tokira bueltatzeko asmoz, oztopoz eta erronkaz betetako bide bat ekingo diote Kwaik eta bere lagunek. Lortuko ote dute?

Merkealdia**2mó 189€**

lehen 229€

erreflexuen aurkako
betaurreko **progresiboak**

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

**MULTIÓPTICAS**

943 37 74 55

Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA

eskatu hitzordua
WhatsApp bidezwww.multiópticas.com   



ZUREKIN

solaskide

Mintzen POZA

PRAKTIKATU



**nonahi
noiznahi**

Eman izena urtarrilaren 31 baino lehen:
Ttakun Kultur Elkarteak | LASARTE-ORIA
kultura@ttakun.eus 943-37 14 48 • 695 78 53 89









**EGIN ZAITEZ
BAZKIDE!**



LASARTE-ORIA

Izen-abizenak: _____

NAN: _____ Jaiotze data: _____

Helbidea: _____ Herria: _____


Telefonoak: _____

e-maila: _____

Kontu korrontea (IBAN): _____

Bidali postaz edo utzi bulegoan:
Geltoki kalea 4, beheka 20160 LASARTE-ORIAOn-line egiteko:
www.txintxarri.eus/bazkidetu

Data eta Sinadura


 Ttakun Kultur Elkarteak urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien eta zozketen berri jaso nahi dut emailaz

Ttakun kultur elkartearen izenean emandako datuak bazkideen hudekietarako erabiliko direla adierazten dizugu; hudekietara administratiboa, bazkideen onuren aplikazioa, zozketen partehartzea eta harremanetarako informazioa. Emandako datuak bazkideetarako irauten duen bitartean edota betebeharrak irauten duen bitartean gordeko dira. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonari eskainiko betebeharrak legala dagoen kasuetan ezik. Honetaz gain, edozein momentutan egikaritu daitezke sarbide, zuzenketa, ezeztatze, opozizio, mugatze eta eramangarritasun eskubidea, TTAKUN KULTUR ELKARTERA idatzi bat zuzenduz NAN agiria aurkeztuz, edo posta elektronikoki bat bidaliz datubabesa@ttakun.eus helbidera.

Informazioa eta bazkidetzak: ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943-37 14 48